

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari@egunkaria.com



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

Ramon Etxezarretaren galderari

Joseba Butron Jauregi • GETXO

«Zer egin duzu, bada, zuk ni ez bezala bizitzeko, edo zer ez duzu egin? Zer ez duzu, bada, egin zuk bizkartzainik merezi gabe bizitzeko», galdetu didazu. Ez dakit zer egin dudan edo ez dudan, Etxezarreta jauna. Nik ez dut nahi zu horrela bizi zaitez, bakarrik lasai ehun metro karratuko zure etxeko askatasun esparruan, Euskal Herri osoa lagun duzun sentsazio nardagarriarekin, poz zeken hori sentituz. Ulertzen dut zure mina, neuk ere min handia dudalako. Ez zarela bizi diozu, eta egia da. Hori ez da bizitzea.

Kontua da, Etxezarreta jauna, neu ere naizela bizi. Neuk ere badut min sakon bat. Ez dakit zer egin dudan edo zer egin ez du-

dan existitu gabe bizitzeko. Zeren eta ni ez naiz inoiz existitu. Euskalduna naiz, baina nire paper guztiak begiratu eta ez dut inon aurkitzen horren egiaztapenik. Denek esaten dute espainiarra naizela. Nik uste nuen Euskal Herrikoa nintzela, baina ez da existitzen. Begiratzen dut munduko mapetan eta ez dago. Nik ez dizut galderarik egingo, daukazun mina ez larritzeko. Zuk bizitzeko eskubidea duzu, aske bizitzeko, sufrimendurik gabe. Bihotzez diot. Baina nik ez dut ulertzen zer egin dudan mundu honetan, nire Herrian existitu ezin izateko. «Zeinen nardagarria den Euskal Herri osoa lagun duzula ohean etzatea», diozu ironiaz. Egia da. Neuri ere zeinen nardagarria egiten zaidan demokrata guztien laguntza sentitzea, ni existitu nadin denak lagun ditudala ikustea, nire eskubideen eta Nire Herriaren eskubi-

deen alde denak borondate onez ari direla konprobatzea.


'Bezero' vs 'kliente'

Mikel Enparantza • DONOSTIA

Hain gara akonplexatuak euskaldunak, hegoaldekoak kasu honetan, ezen espainolek diferente den euskarazko hitza deskubritzen dugunean panazea aurkitu dugula pentsatzen dugu. Arriskutsua bezain perilos, mintzairak ez baitira guk nahi dugun modukoak, baizik eta bere dinamika propioa segitzen dute. Horrela, azken urteotan bizitza modernora zabaltzen ari den *bezero* hitzak espainol kutsua duen *kliente*-ren lekua nahi du bete. Zein da gure desgrazia, latinetik datorren hitz internazionalaren lekua, espai-

noletik datorren hitz *castizoak* bete duela. Latinez *cliens/ntis* zena espainolera *cliente* pasa da, frantsesera *client*, ingelesera *client* eta alemanera *Klient*. Eta bere deribatua espainolera *clientela*, frantsesera *clientèle*, ingelesera *clientele* eta alemanera *klientel*. Hitz horren ordez euskaldunok nahiago dugu *bezero* erabili. Gaztelako herrixka hotz eta barkatu bateko ultramarinos triste batean dardarik gabe erraz konprenituko luketen *vezero*, *de vez*, *el que pide la vez*, *cliente de una tienda*, *o persona que guarda turno para una cosa*. Eta klientelaren ordez, *veceria*, bezeria. Espainolei ere ez zaie bururatu bizitza modernoko banku bateko usuarioei *vezero* deitzea, hitz horrek beste kontestu bat baitu. Nafarroak soberanitatea eta dignitatea berreskuratzen duenean soilik normalizatuko da Euskara.

montxo



galdeiozu... ?



Tresna edo gailu bat ukitu eta kalanbrea ematen badigu, zein neurri hartu behar dugu?

Oihana Segurola (Gasteiz)

FERMIN AROZENA

'Energia Gela' erakusketa ibiltariaren arduraduna eta Ingurumen hezitzailea

Deskarga elektriko baten ondorioak oso aldakorak izan daitezke. Aldakortasun hori hainbat eragileren menpe dago: korrontearen ezaugarriak, kontaktoaren iraupena eta pertsonaren azalaren erresistentziaren arabera. Gomendio hauek kontuan hartu: biktima ukitu baino lehen korrante elektrikoa itzali edo deskonektatu; itzaltzea zaila bada, kalanbrea eman duen gailutik banandu pertsona. Erredurarik gertatu bada, lehen zainketak eta kremaren bat eman, inoiz ez crema koipetsurik. Eta izerditan badago, etzanda eta hankak gorantz ipini eta artilezko manta batez estali.

Martxoaren 26tik aurrera **Jose Mari Carrere • ipuin kontalaria** izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.

hirusta

Koldo Almandoz



James Dean desagertu da

Ez dut ezer esateko gogorik. Gertatu ohi da. Hainbeste gauza buruan izan eta buelta asko eman ostean, bat-batean hausnarketa horiek ezertarako balio ez dutela konturatzen zarenean. Horregatik betelana egitea erabaki dut. Ipuin bat kontatuko dizuet. Ohar bat: betelana besterik ez den ipuin ergel bat irakurtzeko denbora dutenentzat soilik idatzi dut. Besteok jarraitu ezazue egunkariko beste atalekin.

«James Dean desagertu da. Hori pentsatu dut etxera itzuli eta pasiluko ate ertzean ikusi ez dudanean. Egia esan, ez dut sekula etxeko peluxekin harreman sakonik izan. Bakoitzak bere eremua du. Etxeko peluxak ate atzealdeetan bildu, noizbait norbait jausitako ile luze bat hartu eta sekulako sokatira saioak antolatzen dituzte. Niri ez zait inporta etxean peluxak egotea. Ate atzealdean gertatzen diren bitartean bost axola. Duela pa-

re bat hilabete, ordea, sokatira gustuko ez zuen peluxa bat azaldu zen. Atearen izkinan geratzen zen beti. Sukalderauntz begira. Eta nik kariñoa hartu nion. Eta kariñoa hartzen diegan gauzei izena jartzeko ohitura dut. James Dean. Peluxa bakarti batentzat izen aproposa. Baina gaur etxera itzuli eta ez dut James Dean pasiluan ikusi. Desagertu da. Ate atzealdera hurbildu naiz. Izenik ez duten peluxak, betiko moduan, ilearekin sokatiran ari ziren. James Dean non ote zegoen galdetu dieanean, zera esan dit ogi apur bat jaten ari zen peluxa potolo batek:

—Hamabiak aldera, aire korrante abioia hartu eta eguerdiko hegaldian sukalderrantz abiatu da. Inoiz peluxarik itzuli ez den baldosa zurien eremura...

Ez dut negarrik egin, baina zin dagit ez naizela sekula beste peluxa batekin enkarnatuko».